Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2016ko abenduaren 23ko 12:00etan, Erroibarko Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko, lehen deialdian; bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Álvaro Villanueva Azcarate, Joseba Martínez Rey eta Joaquín María Martínez Choperena, bilkuraburu alkatea, Enrique Garralda Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure

Gai zerrendako lehenengoari ekin baino lehen EHBildu taldeko zinegotziak, Martínez Rey, jakinarazi du bilkura grabatu behar duela

1.- 2016ko URRIAREN 19ko eta ABENDUAREN 2ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

2016ko urriaren 19ko bilkuraren akta onartzea erabaki da, aldeko lau botoz eta aurkako batez, Martínez Choperena zinegotziarena, eta 2016ko abenduaren 2ko bilkuraren akta aldeko lau botoz eta abestentzio batez onartu da, Martínez Choperena zinegotziarena, bilkura horretan egon ez baitzen.

2- 2016ko URRIAREN 15etik ABENDUAREN 21a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Garralda jnk., 2016ko urriaren 14tik abenduaren 21a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Udalkideak jakitun dira.

Martínez Choperena zinegotziak hitza hartu du eta esan du 2016ko 1go. Sei hilekoari dagozkion ur-kontagailuen irakurketei buruzko 192 ebazpenean errezibuaren zenbakia besterik ez dela agertzen eta eskatu du gutxienez arazoak gertatu diren herria ere agertzea, eta guztiok ados daudela diote. Martínez Rey zinegotziak dio 203 ebazpena bikoiztu dela eta horietako bat

deuseztatu behar dela eta 206 ebazpenari dagokionez akats bat dagoela, "Eskola Gobernua" dioen tokian "Nafarroako Gobernua" jarri behar baitu.

3.- 2017KO ZERGA-TASAK. ONESPENA.

Alkateak, Garralda j.k, dio zerga-tasei dagokienez, 2017an balorazio ponentzia berrikustea proposatu behar duela kontuan hartuz, joan den urteko tasak mantentzea proposatzen duela, uraren gaineko kontribuzioaren emaitzak jakin arte.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da 2017ko zerga-tasak hauek izatea:

- 1.- Ehuneko 0,28ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko
- 2.-Ehuneko 0,40ko karga-tasa jartzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko.
- 3.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)
- 4.-1,10 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.
- 5.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, ehuneko 2,1 portzentajea ezartzea eta ehuneko 8,6ko tasa.

4.- IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENA

Ikasteko diru-laguntzei dagokienez, honako zerrenda berretsi da aho batez:

2015/2016 IKASTURTEKO ZERRENDAK
DIRU-LAGUNTZA JASO DUTEN IKASLEAK

HAUR HEZKUNTZA 1.-2.-3. (KUOTA 61,10 euro)

- IMANOL MENDOZA ANCHUNDIA
- UXUE ERRO GARRALDA
- ION NOAIN BIURRARENA
- PEIO CARBALLO LARRAÑETA
- IZAI CUBILLO VILLANUEVA
- MAITE LARRAINZAR FAGOAGA
- IRUNE ETXEBERRIA REDIN
- HEGOI AUBAN REY
-
- ENEKO EQUISOAIN REMIRO
- LEIRE IRIARTE BIURRARENA
- MARTXEL ZIGANDA GARRALDA
- NEREA AINCIBURU JIMENEZ
-
- LUKEN MORENO RAMOS
- MAREN ECIOLAZA BAZTAN
- ENARA ZIA MURILLO
- AITZIBER HUALDE CALVO
- EIDUR EKISOAIN GOIENA

LEHEN HEZKUNTZA 1.-2.-3.-4.-5.-6. (KUOTA 120,20 euro)

1º

- XUBAN LARRAINZAR FAGOAGA
- OIER AUBAN REY
- MARKEL SOMOVILLA HERRERA

- XABIER IRIARTE BIURRARENA
- NAHIA ETXEBERRIA REDIN
- ARAITZ ZIGANDA GARRALDA

2º

- OIER EQUISOAIN REMIRO
- GORETTI ERRO AMOEDO
- IDOIA CARBALLO LARRAÑETA
- AFRIKA AYESA SALCEDO
- MIKEL URRUTIA OROZ
- BELATZ ZALBA ELIA
- OIHAN ZALBA ELIA
- MANES AINCBURU JIMENEZ
- MARTIN MURILLO ZORROZA

3º

- UNAX ARGAIN RODRIGUEZ
- ARITZA ZALBA ARIZMENDI
- JUNE VIDAURRETA TORREA
- MAIORGA URBELZ GASTEARENA
- GARBIÑE ETXEBERRIA REDIN
- MITXEL ERRO GARRALDA
- JULEN ECIOLAZA BAZTAN
- OLATZ ERRO ERBURU
- NAROA ECIOLAZA ANCHO
- MILAN MOL BARTOLOME

4º

- JAIONE EQUISOAIN REMIRO
- UNAI KURCZAK VILLANUEVA
- HELENE ARGAIN IRIARTE
- ANDREA URRUTIA OROZ
- AMAIA HUALDE CALVO
- KATIXA AGORRETA ZABALZA

5º

- AIMAR ERRO GARRALDA
- DIEGO MURILLO ZORROZA
- IONE ERRO GARCIA
- NAIA VIDAURRETA TORREA

6º

- OIER ERRO ECIOLAZA
- SANTIAGO HUALDE ECIOLAZA

- PEIO ARMENDARIZ ORDOÑEZ

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 1. eta 2. ZIKLOAK (120,20 €)

1º

-
- URKO ARGAIN IRIARTE
- IÑAKI GARRALDA CELAY
- ALMUDENA ZALBA HINCAPIE

2º

- SANDRA MURILLO ZORROZA
- ADRIAN AYESA SALCEDO
- JOSE MIGUEL ZALBA HINCAPIE
- EDURNE GARRALDA ZORROZA
- KOLDO IRIBARREN BIDAURRETA
- IOSU MENDIVE ZALBA
- MAITE ARMENDARIZ ORDOÑEZ

3º

- PEIO AGORRETA ZABALZA
- IRATI SARAGÜETA MARTINEZ
- IRUNE ERRO ERBURU
- IDAIRA ARGAIN RODRIGUEZ
- MAIDER ARDANAZ DUFUR
- ANA RODRIGUEZ LOPEZ DE URALDE

4º

- JOSEBA ERRO ECIOLAZA
- IÑIGO AYESA SALCEDO
- IBAN ERNETA CERDAN
- XANTI ECIOLAZA ANCHO
- GEMA LISBETH MENDOZA ANCHUNDIA, 4º (ANITZEKO PROGRAMA)
- IOSEBA ARMENDARIZ ORDOÑEZ

LOGSE Batxillerra, Gradu Ertaineko Formakuntza Zikloak (LH Bigarren Maila),
Goi Mailako Formakuntza Zikloak (Peritoak,LOGSE Batxillera).

BATXILLERRA, ZUBI-MAILA

- BEÑAT ERRO ERBURU, 300,51 €
- EKHIÑE OROZ TORREA, 601,01 €
- ARKAITZ HUALDE CALVO, 450,76 €
- LEIRE IRIBARREN BIDAURRETA, 601,01 €
- MIREN AGORRETA ZABALZA, 601,10 €
- ANDREA IRIGOYEN URTASUN, 751,26 €
- ASIER IZAL IRIBARREN, 300,51 €

- EDISON JOSE MENDOZA ANCHUNDIA, 601,01 €
- AITZIBER ARDANAZ DUFUR, 601,01 €
- PAGOA IRIARTE VILLANUEVA, 601,01 €

GRADU ERTAINA ETA GOI-GRADUA

- ANDER MENDIVE, 450,76 €
- UNAI CALVO CASTERA, 601,01€
- DANIEL PASCAL SANCHEZ, 601,01 €
- ITZIAR IRIGOYEN ELIZAGARAY, 300,51 € .
- XABIER GARRALDA CELAY, 450,76 €
- LEYRE HUALDE ECIOLAZA, 601,01 €
- ASIER ESLAVA REDIN, 601,01 €
- KOLDO GIL GASTEARENA, 601,01€
- MARTIN IRIBARREN BIDAURRETA, 601,01 €
- UNAI LOPEZ GASTEARENA, 150,25 €
- ANGEL ERNETA CERDAN, 601,01 €.
- ENEKO GARCIA CALVO, 450,76 €
- IKER NAVASCUES ITURRI, 901,52 €
- MAIDER URBELZ GASTEARENA, 601,01 €
- GORETTI URBELZ GASTEARENA, 601,01 €
- JAVIER RODRIGUEZ LOPEZ DE URALDE, 300,51 €
- JAVIER ECIOLAZA SANTOS, 601,01 €
- MAITE CALVO CASTERA, 601,01 €

ESKOLA GARRAIOA:

- MIREN ETA LANDER GARRIDO OLONDRIZ, 600€
- ORREAGA COZAR MARTINEZ, 600€
- ANGEL ERNETA ETA ASIER ESLAVA, 600€
- ENEKO GARCIA CALVO, 600€

EUSKARA IKASKETAK:

- RUBEN SALON CHIC, 156€
- MARTA BAZTAN ZURBANO, 156 €
- RAQUEL MARTINEZ CHOPERENA, 156 €
- CARLOS CARBALLO ERBURU, 156 €
- ITZIAR SARAGÜETA RECA, 53,35
- JANET TORREA URBELZ, 109 €
- NIKOLAS ZIGANDA MANGADO, 156 €
- ANGEL ARGAIN FERNANDEZ, 156 €
- SONIA IRIARTE GIL, 156 €
- ANA ITURRI ECIOLAZA, 156 €
- PILAR FAGOAGA MARTIARENA, 164 €
- PURIFICACION PEDROARENA MAISTERRA, 164 €
- IRENE MORENO RAMOS, 164 €
- ROBERTO CASTELLOT LUSARRETA, 164 €
- AMAIA REDIN IROZ, 243,50
- MARTA ZORROZA HUARTE, 156 €
- RUBEN ZAMBRANA CARBALLO, 156 €

- ISABEL LARRAÑETA INDA, 156 €
- RAFAEL CARBALLO ERBURU, 156 €
- IOSU ZAMBRANA CARBALLO, 156 €
- BEGOÑA ALMIRANTEARENA LARRAÑETA, 156 €
- JOKIN MARTINEZ TXOPERENA, 156 €

UNIBERTSITATE MAILAKO IKASKETAK:

- AINHOA ERRO GARCIA 991,65 €
- FENANDO URTASUN ARRIBERRI..... 450,00 €
- MIKEL IRIGOYEN URTASUN..... 991,65 €
- PEDRO HUALDE ECIOLAZA..... 766,28 €
- LANDER GARRIDO OLONDRIZ, 270,52
- JOANES ARROSAGARAY ERBURU.....1.081,80 €
- MIREN GARRIDO OLONDRIZ.....991,65 €
- ARITZ CARBALLO ERNAGA..... 924,04 €
- ANA MURILLO LARREY 676,13 €
- ORREAGA COZAR MARTINEZ 901,50 €
- NAIA SANCHEZ CARBALLO 901,50 €
- JOSE MARIA ECIOLAZA ANCHO 721,20 €
- OLAIA MARTINEZ AGORRETA 901,50 €
- IZASKUN ARROSAGARAY ERBURU 721,20 €
- MIREN ERREA NUÑO,631,05 €

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta azaldu du ikasketen diru-laguntzekin beti zalantzaren bat agertzen dela, adibidez Aurizberrin pertsona batek bigarren karrera bat ikasteko, lehenago beste bat ikasi baitzuen, baina master bat izango balitz bezala kontsideratuz. Eskola garraioari dagokionez, eskatu ez duten gazte batzuei informazioa eman zaie eta eskabidea aurkeztu dute, bat izan ezik.

5.- MUSIKA ESKOLAKO MEMORIA ETA 2017KO AURREKONTUA

Musika Eskolako Udalaren ordezkariak, Sonia Iriartek, memoria, aurrekontua eta 2017rako tasen igoeraren proposamena aurkeztu ditu. Alkateak, Garralda jk., zalantzak dituela dio proposatzen den %16ko igoerarekin, 399€ + 63€ tasa 462€ izatera pasatuko bailitzateke eta 168€ + 27€ 195 eurora, eta berak modu hauetako batean onartzea proposatu du:

1.- Ikasleek igoera bere gain hartzea. Ikasleen tasak: 462€ edo 195€. Toki entitateen tasak: 399€ eta 168€.

2.- Toki entitateek ingera bere gain hartzea. Toki entitateen tasak: 462€ edo 195€. Ikasleen tasak: 399€ eta 168€.

3.- Igoera familien eta toki entitateen artean banatzea, bakoitzak %50 bere gain hartuz. Hots, bakoitzak 430€ eta 181€. Bere ustez egokiena eta proposatzen duena da igoera %50ean banatzea, familien eta toki entitateen artean, hau da, hirugarren proposamena. Modu berean jakinarazi du Erroibarko Udalak 2016/2017rako egin beharreko ekarpena 13.755 € dela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- 2016/2017 ikasturteko aurrekontuak onartzea

2.- Tasen igoera onartzea eta igoera hori familien eta toki entitateen artean banatzea, bakoitzak 550 bere gain hartuz. 430€ eta 181€.

3.- Musika Eskolari erabakiaren berri ematea.

6.-2014/2020 LGPea PROIEKTUAK SARTZEKO ESKAERA: Bideen egokitzapena eta Parke Mikologikoa.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du 2014/2020 LGPren deialdia argitaratu dela eta bi proiektu aurkeztuko direla, bideena eta parke mikologikoarena. Lehenengoari dagokionez, duela 8 urte proiektu bat prestatu zen Sorogainen atsedengunea, urmaela eta parkea egiteko. Cedernako teknikariarekin, Edurne de Miguel, eta Martinez Rey zinegotziarekin egindako bileren ondotik bideen proiektua aurkeztea adostu da, eskuorriak prestatzea, seinaleak eta garbiketa egitea, proiektua Ekilaneke prestatuz eta Cedernarekin egin beharreko izapideez Martinez Rey zinegotzia arduratuz. Parke mikologikoari dagokionez, bilerak egin dira teknikariek, Garrapo enpresako Javier Gomezekin eta Ekilaneke Fermin Izcorekin, proiektua berrantolatzeko ibar osoko barruti bakarra eginez, Martinez Choperena zinegotziak dioen bezala, berak hasiera batean proposatu zuena, Txangoa eta Kintoko zati bat sartuz. Kudeaketa berdina izango da, aldatzen dena da barrutiaren eremua, handitzen delako. Garrapo enpresak proiektua aldatu behar du eta beheko zatia, era xumean baldin bada ere, kudeatzeko aukera aztertuz. Martinez Choperena zinegotziak hitza hartu du eta esan du beheko zatia udaberrian kudeatu behar dela, urtearen gainerako hilabeteetan ez baita beharrezkoa.

Dena den, bi proiektuen dokumentazio osoa aurkezteko denborarik ez dagoenez, honakoa erabaki da aho batez:

- 1.- Bideen eta parke mikologikoaren proiektuak onartzea.
- 2.- Bi proiektuak 2014/2020 LGPren bigarren deialdian aurkeztea, hots, 2017ko martxoan.
- 3.- Proiektuak Udalaren hirigintza teknikariari, Ana Larequi, igortzea, txostena eman eta memoria presta dezan, bai eta gaiarekin zerikusia duten gainerako erakundeetara txostena eman dezaten.

7.- PARKE MIKOLOGIKOAREN BARRUTIA ONESTEA ETA ORDENANTZA BERRIKUSTEA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du parke mikologikoari dagokionez barrutia onartu behar dela eta izapideei hasiera ematea eta onetsitako ordenantza aldatu behar dela barrutian Orondritz, Aintzua, Txangoa eta Kinto sartuz eta berriro ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela. Parkearen finantzazioari buruz jakinarazi du Erroibarko Udalak hitzarmena igorriko diela Auritz eta Orreagako Udalei hiru Udalen artean sinatzeko eta hitzarmen horretan parke mikologikoaren proiektua ordaintzeko proposamena adieraziko da, entitate bakoitzak jarritako hektarea kopuruaren arabera banatuz. Erroibarko Udalak proiektuaren kostua aurreratuko du eta Auritz eta Orreagako udalei dagokiena 20 urteko epean ordainduko dute eta amortizazioa urtero 800 eta 1000 euro artekoa izango da, interesik gabe.

8.- EMAKUMEEN AURKAKO INDAKERIA DEUSEZTATZEKO NAZIO ARTEKO EGUNAREN ERAKUNDEEN DEKLARAZIOAREKIN BAT EGITEA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du joan den urtean antzeko deklarazioa onetsi zela eta aurten ere egin behar dela uste duela.

Proposamena ikusirik, aho batez erabaki da:

- 1go. Honako deklarazioa onartu eta harekin bat egitea:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO
EGUNA.

GOIBURUA: “HERRITARGO KONPROMETITU BATEN ALDE,
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRA”

Azaroaren 25ak balantze egiteko eguna izan nahi du, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egiteke geratzen diren pausoei, erronkei eta hobekuntzei buruzkoa. Horrez gain, bizirik irtetea lortu duten emakumeei omenaldia egiteko eta eraildako emakumeak oroitarazteko eguna ere izan nahi du. Egun honetan errealitate hori ikusarazi nahi da eta gizartea kontzientziatu eta sentsibilizatu. Emakumeen aurkako indarkeria fenomeno estrukturala da, gure gizartean dauden maila sozial guzti guztietan, herrialde eta munduko leku guztietan eta urteko egun guztietan ematen dena. Indarkeria mota honen biktimak emakumeak eta neskatok dira, emakume eta neska izate hutsagatik, diskriminatuak eta behartuak dira euren bizitzetako esparru eta une guztietan.

“Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak” ezartzen duen bezala, emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa ondorengo da: *“emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.*

Indarkeriaren biktima diren emakumeen kontzeptuaren barruan neska adingabeak ere sartuta daudela ulertzen da”. Emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa ez da emakumeen arazo bat, gizarte osoaren arazo bat baino, eta, horregatik, gizarteak bere osotasunean erantzun behar du.

Azken urteotan aurrerapenak eman dira arau-mailan, zein hezkuntzako eta indarkeria aurrezaintzeko programak ikastetxeetan inplementatzen edota gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak planifikatzen besteak beste. Eraitza positiboak lortu ere dira gizarteak eta erakundeek erantzun mailan, esaterako, Nafarroako herritarrek San Ferminetan erakutsitakoa, era eraginkorrean agertuz eta gaitzespena erakutsiz festetan zehar gertatutako sexu-erasoen aurrean eta argi utziz jarrera mota horiek ez direla onartzen eta ez dutela sortzen, ezta laguntzen ere, gizarte demokratikoa eta berdintasunezkoa lortzeko bidean.

Gaur egun gertatzen diren beste errealitate batzuk oroitarazten digute gatazkan dauden herrietako emakumeek bizi duten indarkeria, eta Europako immigrazio politiken aurrean herri plataforma zein gizarte mugimenduetatik beren ezinegona adierazteko antolatzen diren ekintza eta ematen diren erantzunek egoera hauek guztiak salatu nahi dituzte: pertsonen salerosketa, emakume eta nesken aurkako erasoak eta bortxaketak, giza eskubideen urraketak.

Hori guztia dela eta, era kolektiboan, Tokiko Erakundeek, honakoa ADIERAZTEN DUGU:

GURE GAITZESPENA indarkeria sexistari: agerian dagoenari nahiz ikusten ez denari, eta haren adierazpen guztiei, diskriminazioaren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren emaitza direnak.

GURE KONPROMISOA

Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko, indarkeria-haztegia direlako, baita gure konpromisoa emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurrean erantzutekoa ere, berdintasuna politika guztien ardatza izan den legegintzaldi batean.

GURE ELKARTASUNA edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiarekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekin ere. Gure babes osoa beraiendako eta beren familiendako.

ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU, emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko, banakoarena nahiz taldekoarena, indarkeria mota hori errotik kentzeko. Baita emakumeen bizitzan ematen diren indarkeria mota guztiak eta kontrol patriarkalaren adierazpen guztiak salatzeri. Eta, azkenik, azaroaren 25aren inguruan antolatuko diren jardueretan parte hartzeri animatu nahi ditugu.

Horrela, guztiok batera aurrera jarraituko dugu, geroz eta jasangarriagoa, demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdina izan den gizartea baten bidean.

2. NUKFari erabakiaren berri ematea, jakin dezan eta egokiak diren ondorioak izan ditzan.

9.- LAURENTXIKO OIHAN APROBETXAMENDUA ETA BALDINTZA PLEGUA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamenduak egindako markazioaren ondoren, Laurentxiko oihan aprobetxamenduaren enkantea egiteko balorazio ekonomikoa eta baldintza teknikoaren plegua jaso direla eta oinarritzko prezioa 38.700,00 euro dela. Udalak baldintza partikularren plegua onartu behar du.

Aho batez erabaki da Laurentxiko oihan aprobetxamendua plegu itxiaren bidezko enkantearen bidez saltzea, oinarritzko prezioa 38.700 euro delarik. Modu berean baldintza plegua eta preskripzio teknikoak onetsi dira.

10.- AURREKONTUKO ALDAKETEN HASIERAKO ONESPENA

Ez da beharrezkoa, hortaz, puntu honek ez du edukirik.

11.- BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSTEA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du azkeneko 8 urtetan ez dela balorazio ponentzia berrikusi eta hori egitea beharrezkoa dela. Ponentziak eta horien errebisioak Tracasak egiten ditu, hortaz, haiekin bilera egitea proposatu du lan hori egin dezaten.

Aho batez erabaki da:

- 1.- Erroibarko Udalaren balorazio ponentziaren berrikuspena onartzea.
- 2.- Tracasari balorazio ponentziaren lanak eta berrikuspena egitea eskatzea, alde aurretik haiekin bilera eginez.

12.- NATURA SAREKO MENDIKO BAZKALEKUEN DEIALDIAREN EBAZPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolakuntzako Zuzendari Nagusiak 2016ko azaroaren 30eko 861/2016 ebazpenari buruzko informazioa eman du; hartan esaten da Natura 2000 Sareko mendiko bazkalekuen kudeaketa jasangarriarentzako diru-laguntza eskaera ez dela onartu, ezagutzen ez dugun baso-txosten baten edukian eta onargarria ez den abere-erabakian oinarriturik. Modu berean, jakinarazi du diru-laguntza hori sei entitatek eskatu dutela eta biri bakarrik eman zaiela, hortaz, dirua baldin badago eta ukazioaren arrazoiak zeinek diren ez dakigunez, gora jotzeko errekurtoa jartzea proposatu du Landa Garapeneko Kontseilaritzaren aurrean, eta Hector Nagoreri txosten juridikoa eta proiektua idatzi zuen teknikariari, Fermin Izco, txosten teknikoa egin dezala eskatzea.

Zinegotzi guztiak ados egonik, aho batez erabaki da alkateak, Garralda jk. egin duen proposamena onartzea eta Landa Garapeneko Kontseilaritzaren aurrean errekurtoa jartzea aipatutako txostenak erantsiz.

13.- EMAKUMEEN AURKAKO ERASOEN SEINALEAK ERROIBARKO UDAL DERMIOAN JARTZEKO PROPOSAMENA

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du gaia joan den urtean ere aipatu zuela Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko egunaren Erakundearen Deklarazioarekin bat egitea erabaki zenean, eta bere ustez gehiago egin ahal dela, ikusi besterik ez baitago nola zenbait udalerrietan, Iruñean eta Iruñerrian adibidez, seinaleak jartzen ari direla, gure udalerrian ere horrelako zerbait egitea proposatu du, seinaleak erosi eta jarritz, adibidez Erroibarko mugan, eta hasiera batean 6 kartel elebidun erostea nahikoa izan daitekeela dio.

Aho batez erabaki da Martinez Rey zinegotziaren proposamena onartzea eta alde zuzenetik Errepidearen Kontserbaziorako Zerbitzuan galdetzea, jarrita dauden beste seinaleak baliatu ahal diren eta arautegiak zer dion jakiteko.

14.- AHOTSA.INFOK TORTURARI BURUZKO DOKUMENTAL BATI LAGUNTZA EMATEKO ESKAERA

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du Ahotsa.infotik Udala gonbidatu dutela Zabalza kasuaren eta Euskal Herrian izandako torturen gaineko dokumentala egin eta zabaltzeko antolatu den auzolanean parte hartzea, proiektuari 250 € emanez eta eskualdean proiektio bat eginez. Aldi berean jakinarazi du Ahotsa.info informazio kanal bat dela eta urte batetik hona lanean ari direla Zabalzaren kasuaren eta beste tortura kasu batzuen gainean dokumental bat egiteko. 30 urte beranduago Mikel Zabalzaren memoria berreskuratu nahi da, Guardia Zibilak atxilotu eta 20 egun desagerturik eman ondoren, bere gorpua Bidasoa ibaian agertu zen. Bertsio ofizialaren aurrean bere familiak eta lagunek ez dute ahaztu nahi eta egia, justizia eta erreparazioa eskatzen dute. dokumental horretan torturak gure gizartean daukan inpaktua aztertu nahi da, Frankismoaren garaian inolako gupidarik gabe poliziek eragindakoa eta ondoren ere erabili izan dutena.

Finantzazioaren zati handi bat norbanakoen eta taldeen ekarpenen bidez egin da, bai eta jaien eta ekitaldien bidez ere, baina erakunde publikoenak beharrezkoak dira eta horregatik eskatu dute Ahotsa.info-Mintza Komunikazio Elkartearekin hitzarmena sinatzea, 2017-2018 ikasturtean gure udalerrian pelikularen emanaldi bat kontratatuz.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du elkarte horrek datorren moduan beste batzuk ere laguntza eske etor daitezkeela eta ezinezkoa dela guztiei kasu egitea, eta, bere ustez, Udalak ez du horrelakoetan parte hartu behar. Villanueva zinegotziak hitza hartu du eta Garralda jk. alkateak, dioenarekin ados dagoela dio eta galdetu du zergatik ez den gauza bera esaten beste aldekoez, berak kasua ongi ezagutzen duela, familiarekin eta manifestaldietan egon dela eta ongi ezagutzen duela haien sufrimendua, baina bere bizitzan horrenbeste gauza eta gertakari ezagutu duenez, batzuei bai, beste batzuei ez, gaur egun ilusioa galdu duela eta ezin du eskatutakoa onetsi. Juanarena zinegotziak hitza hartu du eta esan du giza eskubideak errespetatu behar direla, are gehiago erakundeen kasuan eta ezin dela ukatu erakundeen aldetik indarkeria egon dela bai eta hainbat eskubideen urraketa ere, eta bere ustez norberak ekonomikoki laguntza eman dezake baina ez berriz erakunde gisa.

Martinez Choperena zinegotziak dio beste biktimak badaudela nahikoa babestuek. Dokumentala Mikel Zabaltzari buruzkoa da gehienbat eta ari direla beste kasu batzuentzako dokumentalak egiten baina hau beragatik egiten ari da. Martinez Rey zinegotziak dio alde batekoak ala bestekoak izan hildakoak berarentzako guztiak biktimak dira, baina batzuen kasuan aitortu bada ere beste batzuen kasuan ez, adibidez Mikel Zabalza, gaur egun oraindik ere era ofizialean ez baita onartu eta bere ustez hori onartu behar da eta kalteak ordainarazi, eta kasu honetan ez dela oraindik ere inor zigortu. Beste aldetik uste du bakoitzak bere istorioa baduela eta arreta jarri behar dela eta ausartak izan kasu zehatz batzuk argitu daitezten. Iritzia ematen dugu baina gero ez dugu ezer egiten, eta galdetu du zein den Udalak 250 € emateko dagoen arazoa.

Eztabaidatu ondoren bozketa egin da eta aldeko hiru botoz (Villanueva, Juanarena eta Garralda) eta aurkako bi botoz (Martinez Rey eta Martinez Choperena), Zabalzaren kasuaren eta Euskal Herrian torturak izan duen inpaktuaren gaineko dokumentala, "Galdutako Objektuak" egiteko eta zabaltzeko eginen den auzolanean ekonomikoki parte ez hartzea erabaki da.

15.- BESTERIK

Alkateak, Garralda jk., honako informazioa eman du:

Traktore-gidari-langileen lan-poltsa osatzeko bandoa

- Jakinarazi da ibarrean zenbait lan egiteko traktorea beharrezkoa den kasuetarako traktore-gidari-langileen lan-poltsa osatzeko bandoa banatuko dela; lan orduko 35 € ordainduko dira eta ezinbestekoa izango da aseguruia edukitzea eta B mailako gidabaimena.

2016ko Baso Jardueren Auditoria

- Jakinarazi da 2016ko baso jardueren txostenari auditoria egin diotela eta txostena egokia izan dela.

NAAaren 3029 zk. duen Ebazpen gaitzeslea

- Jakinarazi da Martinez Rey zinegotziak Udalak 2015eko urriaren 28an kasazio errekurtsua jartzeko hartutako erabakiaren aurka NAAaren aurrean jarri zuen gora jotzeko errekurtsua gaitzesten duen 3029 zk. duen Ebazpena eman dela

NAAaren 3317 zk. duen Ebazpen gaitzeslea

- Jakinarazi da Antxon Iturrik lurraldearen kontribuzioari buruz 2016ko otsailaren 2an emandako alkate-ebazpenaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua gaitzesten duen 2016ko maiatzaren 16ko alkate-ebazpenaren

aurka NAAaren aurrean jarri zuen gora jotzeko errekurtoa gaitzesten duen 3317 Ebazpena eman dela.

444/2016 zk. duen Apelazioa ebazten duen epai gaitzeslea

- Jakinarazi da apelazioa ebazten duen 0444/2016 zk. duen epaia eman dela eta haren bidez Elena Lozano Echarrik Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. Epaitegiak 2015eko martxoaren 27an emandako epaiaren aurka jarri zuen apelazio errekurtoa gaitzetsi dela, eta epaia bere osotasunean mantentzen dela eta kostuak ordaintzera kondenatzen duela. Azkeneko horri dagokionez Udalaren letratuaren ordain sariak eta prokuradorearenak Lozano ak. ordaindu beharko ditu, nahiz eta jakin zaila izango dela horiek kobratzea eta ongi aztertu beharko da nola lortu faktura horiek ordaintzea.

0,7ko laguntzak

- Udalak ematen dituen 0,7ko laguntzei dagokionez batzordea deitu behar da horiek ebazteko.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2017ko laguntzak

- Jakinarazi da proiektu mikologikoaren memoriarekin batera eskaera egin dela Nafarroako Kutxa Fundazioak 2017rako ematen dituen diru-laguntzak eskatzeko.

Banda zabalaren alegazioak

- Banda zabalari buruz Nafarroako Gobernuak duen proiektuari alegazioak aurkeztu zaizkio.

2017/2019 LGP

- Jakinarazi da Toki Administrazioako Departamentuak 2017/2019 (TIP) Tokiko Inbertsioen Planari buruzko jardunaldia antolatu duela eta plan hori hirutan banaturik dagoela, Inbertsioen Programak, Tokiko Programazioa eta Determinazio Askea. Tokiko Programazioarentzako eskaerak bi hilabeteko epean aurkeztu behar dira, otsailaren 28a baino lehen.

Aintzinoa-Loizu (lerro administratiboa) Bilera

- Jakinarazi da bilera egin dela Aintzinoako kontzejuarekin eta Aintzinoa eta Loizuko lur jabeekin, katastroan akatsak daudelako. Adibidez, Aintzinoako hilerria Loizuko dermioan agertzen da. Hortaz zuzendu behar da eta lerroa aldatu, beti ere jabeak ados baldin badaude, eta hori ematen badu ere, bilerara jende gutxi agertu zen.

Tokiko Mapa

- Martinez Rey zinegotziak jakinarazi du Nafarroako Gobernuak tokiko maparen proposamena aurkeztu duela eta hamahiru eskualde proposatzen direla. Eta bilera informagarriak egin direla.

Pirinioko Mahaia

- Martinez Rey zinegotziak jakinarazi du Pirinioko Mahaian lan talde bat osatu dela eta antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko testua prestatu dela. Hautetsi guztiei eskutitza igorriko zaie dokumentu horrekin bat egiteko eta gero batzar orokorra eginen da jorratu nahi diren gaiak lantzeko.

16. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Martinez Choperena zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du zertan den udal plana eta alkateak, Garralda jk., erantzun dio aurreikusita dagoela 2017an hitzarmena sinatzea Nafarroako Gobernuarekin eta ondoren lehiaketa egitea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 13:10ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.